

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
<i>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</i>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2014-12-11    Lekua: Santa Klararen Jauregia    Ordua: 17:00 – 17:45 h

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo  
Gizatiar: Begoña Fernández  
Mujeres con Voz: Luciana Gómez Davies  
Roda: Clara Lorenzo  
Sozialisten Udal Taldea: Inés Becares  
Bildu: Arantza Gutierrez  
Alderdi Popularra: Ana Basilio  
EAJ-PNV: Elena Coria  
Kontseiluburua: Keltse Eiguren  
Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Ez dira bertaratu:**

ELA  
Eskuz-Esku (Ez bertaratzeko arrazoia azaldu du)  
Getxo Enpresa

**Eguneko aztergai-zerrenda**

- Aurreko akta onestea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna den azaroaren 25eko kanpainari buruzko balorazioa.
- Berdintasunerako III. Planari buruzko informazioa
- Eskaerak eta galderak

Bilera hasi baino lehen, Berdintasun zinegotziak azaldu du, barneko arrazoiak direla eta, Enclave de ciudadanas por Getxo elkarteak ezin izango dela bileretara joan denboraldi batean, behintzat.

### **Aurreko akta onestea.**

Aurreko bilerako akta onetsi da.

### **Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna den azaroaren 25eko kanpainari buruzko balorazioa.**

Berdintasun teknikariak azaroaren 25eko kanpainari buruzko datu kuantitatibo batzuk eman ditu (balantzea agertzen duen power point-eko aurkezpena posta elektronikoaren bidez bidaliko du).

#### Jarduerak

- *Yo mi me conmigo* antzertia: 90 lagun joan ziren. Gehienak Utopian taldearen ohiko ikusleak ziren, baina zenbait emakume talde ziur aski Berdintasun Zerbitzuak deituta joan ziren.
- *Salaketa faltsuak: errealitate juridikoa hiri-kondairen aurka* hitzaldia 35 lagun joan ziren: 30 emakume eta 5 gizon.
- *Palabras* antzertia: 157 lagun joan ziren (94k gonbidapena zeukaten, eta beste 63k txartela erosi zuten). Beraz, gehienak emakumeen elkartearen bidez joan ziren.

#### Zatoz lilara kanpaina

Kanpainak hainbat zati izan ditu:

- Webgunea: Ezin izan zen abiarazi azaroaren 25era arte. Asteartetik igandera 290 lagunek bisitatu zuten, eta guztira 383 saio egon ziren. Webgunearen barnean 53 test egin ziren.
- Facebook-en 116 jarraitzaile, 60 sartze eta 1.230 erabiltzaile egon dira.
- Kanpainaren bideoa 630 aldiz ikusi zen, eta 1.250 aldiz bidali zen whatsapp-en bidez.
  - Puntu lila zeukaten 4.000 txapa eta 1.000 inguru eskumuturreko banatu ziren.
  - Puntu lilak jarri ziren udalerriko puntu estrategikoetan, baita udal eraikinetan ere.
  - 17 kirol erakunde, 9 ikastetxe, gazte talde 1 eta Getxoko Udaleko 12 udal arlo kanpainari atxiki zitzaizkion.

Berdintasun teknikariak gogorarazi du kanpainaren helburuak indarkeria matxistaren aurkako eguna bistartzea eta elkartegintzak eta udalerriko agenteek konpromisoa hartzea lortzea zirela. Bere ustez, kanpainaren denborak oso estuak izan dira, eta webguneak eta bideoak ez dute oihartzun handirik izan. Hala ere,

uste du ez dela ahaztu behar kanpaina oso laburra izan dela eta hedapen eremu nagusia udalerria izan dela.

Horren harira, bi gauza nabarmendu nahi ditu: alde batetik, merkatari gehienek emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako txapa jantzi zuten astean zehar, eta, beste aldetik, kirol klub eta ikastetxe askok kanpaina babestu zuten, nahiz eta babes sinboliko hutsa baino ez izan. Gainera, ez da gazte taldeen babesik jaso, bakar batena izan ezik.<sup>1</sup>

Bilduk gogorarazi du, saltokietan ez ezik, taberna gehienetan ere txapa jantzi zutela.

Mujeres con voz elkarteak gaitzetsi du webgunean emakumeen elkarteak ez agertzea kanpaina babesten zuten erakundeen artean. Hori eskatzeko asmoz, kanpaina kudeatu duen enpresarekin harremanetan jarri zela eta eskaerari erantzun ez ziola adierazi du. Berdintasun teknikariak azaldu du elkarteak lotura interesgarrien orrialdean agertzen direla baliabideen artean, jendea parte hartzera bultzatuta, baina atxikipenen artean ere agertu behar zirela adierazi du.

Bilgune Feministako ordezkariak kanpainari buruzko bere balorazioa egin du. Jardueri dagokionez, berak hirutan parte hartu zuen, eta uste du, aretoen edukiera kontuan hartuta, bertaratuen kopurua oso ona izan zela. Utopian taldearen antzertia nabarmendu du: antzezle jardun zuten gazteek maitasun erromantikoa landu zuten, eta antzertiaren ondoren eztabaida foroa egin zuten, berari asko gustatu zitzaiona.

*Zatoz lilara* kanpainari dagokionez, partaidetza handiagoaren falta nabaritu du, batez ere hiru talde kanpainaren baterako antolaketan parte hartzeko prest agertu zirela kontuan hartuta. Aldez aurretik hartutako erabaki guztiak jaso dira, eta beraiek parte hartu eta partekatu nahi zuten. Bideoari dagokionez, berak ez du inondik jaso. Uste du ez duela oihartzun handirik izan, eta, materialei dagokionez, beraiek ere eskumuturrekoak banatu dituzte. Hauei dagokionez, eskumuturrekoan "Actitud Beldur Barik Jarrera" idaztea, ez zela beharrezkoa uste du, nahikoa baitzen "Beldur Barik" euskaraz jartzea, goiburua nahiko hedatuta egoteagatik.

Mujeres con voz elkarteak uste du txapak harrera oso ona izan duela, eta tamaina handiaren hautaketarekin asmatu dutela. Gizatiar elkarteko ordezkariak gauza bera uste du. Hala ere, Berdintasun zinegotziak aipatu du pertsona askok kontrakoa adierazi ziotela. Dena den, kanpaina gauzatu duen enpresak esan bezala, helburua ikusgarritasun handiagoa ematea izan da.

Bilduk jakinarazi du bere koalizioak hiru deialdietan parte hartu duela: Algortako eta Areetako kontzentrazioak eta Erromoko manifestaldia, nahiz eta Berdintasun Zerbitzuak azken hori ez iragarri, gainerako jarduerekin batera. Berdintasun

---

<sup>1</sup> 19 talderekin jarri dira harremanetan.

teknikariak erantzun du ez zeukala deialdi horren berri, Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladak ez baitzion jakinarazi. Talde horrek Berdintasun Zerbitzutik emakumeen elkarteei bidaltzen zaizkien informazio guztiak hartzen dituela eta batzuetan horiekin biltzen dela eta beren jarduerari buruzko informazioa bidali ohi dutela esan du.

Roda elkarteak uste du Areetako kontzentrazioan aurreko urte batzuetan baino lagun gehiago egon zirela. Gizatiar elkarteak uste du batez ere aurreko aldietan baino gizon gehiago egon zirela. Halaber, Bilgune Feministak jakinarazi du bere deialdian partaidetza handiagoa egon zela.

PSEren ustez hobea izango litzateke kontzentrazioak batu eta bat bakarra egitea. Alderdi Popularreko ordezkaria bat dator iritzi horrekin, udalerrri bakarra baita. Hala ere, Bilgune Feministak uste du, hainbat kontzentrazio egonda, eragina handiagoa dela, pertsona gehiagok ikusten baitituzte. Gizatiar elkarteak esan du ez dakiela oso ondo nola baloratu. Dena den, baliteke interesgarria izatea hainbat kontzentrazio egotea, eguraldi txarra eginez gero, pertsona asko ez bailirateke mugituko Algorta eta Areta artean.

Mujeres con Voz elkarteak proposatu du jarduerak denboran luzatzea, hau da, aste bakar batean ez pilatzea. Horri lotuta, Bilgune Feministak esan du, aurreko bileran esan bezala, indarkeria urte osoan dagoela, eta horregatik beti bistaratu behar dela, eta ez bakarrik egun zehatz horietan.

### **Berdintasunerako III. Plana**

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du Berdintasunerako III. Planaren indarraldia abenduaren amaieran bukatuko dela. Hori dela eta, Udalaren osoko bilkuraren hurrengo bileran indarraldia luzatzeko proposamena aurkeztea proposatu da, plan berria egin arte. Hurrengo hiletan Berdintasun Zerbitzuak III. Planaren ebaluazioa egingo duela jakinarazi du. IV. Planari dagokionez, asmoa udal hauteskundeetan ondoren egitea da, Gobernu Talde berriak presta dezan.

Bilduk adierazi du harrিতa dagoela, ez baita aurretik jakinarazi proposamen hori Udalaren osoko bilkuraren hurrengo bileran aurkeztuko dela. Gainera, egun gutxi geratzen dira Informazio Batzordearen hurrengo bilerarako, eta oraindik ez zekiten ezer horren gainean. Berdintasun zinegotziak erantzun du ez dela denborarik egon horri buruzko informazioa emateko, baina, nolana ere, beste aldi batzuetan ere egin den izapide hutsa baino ez dela.

Horrez gain, Bilduk galdetu du ea zentzuzkoa den indarraldia luzatzea, plana ebaluatu gabe. Berdintasun teknikariak erantzun du ebaluazioa ez dela abiarazi, urtea amaitu arte itxaron behar delako. Hala ere, bere ustez, luzapena beharrezkoa

da, besteak beste, Berdinsarean parte hartzen jarraitu ahal izateko. Izan ere, bete beharreko baldintzetako bat indarreko berdintasun plana izatea da.

### **Eskaerak eta galderak**

Ez da horrelakorik egon.

### **Hurrengo bilera: URTARRILAREN 29an, osteguna, 17:00etan SANTA CLARAN.**

Hurrengo bilerarako martxoaren 8ko kanpainarako proposamenak ekartzeko eskatu da. Bilgune Feminista eta Mujeres con voz elkarteek beren burua boluntario gisa aurkeztu dute, kanpaina hori partaidetzazko batzorde baten bidez antolatzeko.